

Irene Urriolabeitia Mallea

Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Bizkaia (1967)

Aurkibidea

Biografia

Munitibarreko Basterreko baserriko alaba, bi alabetan nagusiena. Ama Totorika auzokoa zuen eta aita bere etxe berekoa. Munitibarreko eskola zarratu zuten 7 urte zituela eta Markina-Xemeineko eskolara joan zen eskualdeko beste ume gehienak bezala. 14 urtegaz ikasketekin jarraitzeko Gasteizera joan zen eta han bizi izan zen amuma eta izeko bategaz. Bilbon Haur Hezkuntzako ikasketak egin eta irakasle lanetan jardun da ordudanik, Markina-Xemeingo Bekobentako irakasle zen elkarrizketa egin zitzaionean. Umetako eta gaztetako herriko kontuak ondo ezagutzen ditu. Basterrekon bertan osatu du bere familia.

Zintak

MUN-043

- **Proiektua**: Lea Ibarreko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2026-04-08

- **Iraupena**: 78 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Munitibar eta Gasteiz artean

- **Erref**: MUN-043/003
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:01:24. **Bukatu**: 00:03:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Munitibarko Bastarreku etxekoa da. Hamalau urterekin Gasteizera eraman zuten ikasketak amaitzera. Majisteritza Bilbon egin zuen. Aiton-amonak Munitibarkoak zituen eta Izubietako bat izan ezik.

2. Aita galdu zuen sei urterekin

- **Erref**: MUN-043/004
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:03:23. **Bukatu**: 00:05:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Aita zen Bastarrekua etxekoa. 35 urterekin hil zen apendizitis batengaitik. Aitaren gurasoak eta aitaren bi osaba bizi ziren haiekin etxean. Baserritik bizi ziren. Garai batean normalean emakume alargunek ez ziren berriz ezkontzen, baina gizonezko alargunak bai.

3. Zazpi urterekin eskolara Markinara

- **Erref**: MUN-043/005
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:05:40. **Bukatu**: 00:07:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Ume garaiko Munitibar ez zegoen asfaltatuta. Plazan jolasten zuten. Baserrian lagundu behar izaten zuten. Munitibarko eskolan ibili zen zazpi urtera arte eta kurtso erdian Markinara eraman zituzten inguruko herri txikietako haur denak. Autobusean joaten ziren.

4. Munitibarko eskolan "Cara al Sol"

- **Erref**: MUN-043/006
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:07:55. **Bukatu**: 00:09:57

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Munitibarko eskolan gaztelaniaz ikasten zuten. Maistra Aulestikoa bazen ere, bere senarra udaletxeko idazkaria zen, erregimenaren aldekoa. Eskolan "Cara al Sol" abesten zuten eta banderari mun eman behar zioten. Doña Lutxi zen bere maistra.

5. Markinako eskolan inguruetako haurrak

- **Erref**: MUN-043/007
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:09:57. **Bukatu**: 00:13:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Herritik eta basoetatik zehar jolasten zuten, inolako kontrolik gabe. Markinara eskolara eraman zituzten, gaur egungo Bekobenta eskola dagoen lekura. Inguruko herri txiki guztietako haurrak joaten ziren bertara: Munitibar, Aulesti, Etxebarri, Ziortza-Bolibar... Neskak eta mutilak elkarrekin zeuden eta 6. mailatik aurrera irakasle gazteagoak izaten hasi ziren. Liburuak erabiltzen zituzten.

6. Gasteizen "La Vasca" deitzen zioten

- **Erref**: MUN-043/008
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:13:37. **Bukatu**: 00:16:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Herri euskaldun batetik Gasteizera ikastera joatea oso gogorra izan zen. Lekuz kanpo sentitzen zen eta ulertzen du gaur egungo ume etorkinen egoera, berak antzerako zerbait bizi izan zuelako. " La Vasca" deitzen zioten Ursulinen mojen eskolan.

7. Gasteizen, beste "habitat" batean zegoen

- **Erref**: MUN-043/010
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:16:33. **Bukatu**: 00:19:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Gasteizko Ursulinetan uniformea eramaten zen, nahiz eta berak askotan kalez jantzita joaten zen. Nahiz eta gaztelaniaz bazekien, bertako gainontzeko neskak eta bera oso ezberdinak ziren. Ez zen bere "habitatean" sentitzean. Asteburuetan Munitibarrera bueltatzen zen. Gasteizen ez zuen lagun handirik egin. Bilbon ikasi zuen majisteritza eta orduan bere lekua aurkitu zuen.

8. Ursulinetako irakasleak

- **Erref**: MUN-043/011
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:19:58. **Bukatu**: 00:21:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Ez du gogoratzen bekarik eskatu zuenik bere amak, alabak mojetan ikasteko. Gasteizko Ursulinetan mojak, fraide bat eta elizaz kanpoko irakasleak literatura ematen zuen eta oso irakasle ona zen. Martin irakaslea gogoratzen du.

9. Bizkaierazko alfabetatzea Derion

- **Erref**: MUN-043/012
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:21:27. **Bukatu**: 00:22:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Bizkaierazko alfabetatzea egin zuen hiru udetan, Derioko seminarioan. Titulua atera eta gero egin zuen euskara batuko alfabetatzea. Majisteritza osoa euskaraz ikasi zuen.

10. Majisteritza euskaraz ikasi zuen

- **Erref**: MUN-043/013
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:22:59. **Bukatu**: 00:23:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Majisteritza osoa euskaraz egin zuen. Bigarren promoziokoa da Irene.

11. Unibertsitate garaia Bilbon

- **Erref**: MUN-043/014
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:23:57. **Bukatu**: 00:26:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Unibertsitate garaiko grebak, manifestazioak... asko euskararen inguruan izaten ziren. Neskak eta mutilak zeuden unibertsitatean eta irakaslegoa ere mixtoa zen. Ia ikasle denak bizkaitarrak ziren. Praktikan Otxandiok egin zituen.

12. Euskarazko alfabetatzeko irakaslea

- **Erref**: MUN-043/016
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:26:40. **Bukatu**: 00:29:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:
Euskarazko klaseak eman zituen Markinako Udalean eta gero Munitibarren, 1990-1991ean. Material pedagikoak zituzten. Handik Gasteizera joan zen lanera eta urte batzuen ondoren Munitibarrera bueltatu zen. Markinako eskolan egiten du lan gaur egun.

13. Egungo etorkinak hezkuntzan: hizkuntza

- **Erref**: MUN-043/019
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:32:34. **Bukatu**: 00:35:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:
Eskolan lanean hasi zenean, Markinara joaten ziren etorkinak erraz integratzen ziren eta euskara ikasten zuten, nahiz eta gero haien etxeetan jatorrizko hizkuntza erabili. Gaur egun, ordea, Hego Amerikatik datozenek ez dute euskaraz ikasteko premiarik ikusten gaztelaniaz badakitelako. Horrek asko erdaldundu du Markinako herria, nahiz eta arnasgune bat izan.

14. Egungo etorkinak hezkuntzan: erlijioa

- **Erref**: MUN-043/020
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:35:23. **Bukatu**: 00:36:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Kultur aniztasuna
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa

Laburpena:
Etorkin batzuk erlijioarekin lotuta daude eta hori eskolara eramateak arduratzen du Irene, eskola publikoa akonfesionala delako.

15. Gaur egungo haurrek autonomia gutxiago daukate

- **Erref**: MUN-043/023
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:38:29. **Bukatu**: 00:40:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Haurrek geroz eta autonomia gutxiago daukate, arrazonatzea kostatzen zaie... Gizartearen isla bat dela uste du Irenek, kalean ere berdina ikusten delak. Pandemiak ere kalte handia eragin zuen harremanen artean.

16. Sare sozialen eragina komunikazioan

- **Erref**: MUN-043/024
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:40:46. **Bukatu**: 00:43:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Gaur egungo komunikazio modua eskasa da. Haurrak ez dira gau gauzak ondo azaltzeko, sare sozialetan idazten den modua erabiltzen dutelako. Ereduak eskasak dira, baina gazteei ez zaie inporta.

17. Haurrak ez dira eskolara hezituta heltzen

- **Erref**: MUN-043/025
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:43:02. **Bukatu**: 00:45:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Eskolan irakurketa-plan garrantzitsu bat daukate. Ahozkotasuna landu beharra dago eta haurrak etxetik hezituta joan behar dira eskolara. Baina ez da horrela izaten.

18. Umetako jolasak

- **Erref**: MUN-043/026
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:45:38. **Bukatu**: 00:47:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetako jolasak gogoratzen ditu: ezkutaketetan, harrapaketan, soka-saltoa, goma... Basoan txabolak egiten zituzten ere. Sokasaltoan eta goman gaztelaniazko kantak abesten zituzten. Euria egiten zuenean eliza azpian jolasten zuten.

19. Sancheskiarekin Gerrikaitzetik behera

- **Erref**: MUN-043/027
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:47:31. **Bukatu**: 00:48:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Ameriketatik osaba batek sancheski bat ekarri zion. Gerrikaitzera igo eta handik jeisten ziren. Patinak ere heldu ziren, botadunak eta metalizkoak.

20. Lehenengo GAC bizikleta

- **Erref**: MUN-043/028
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:48:47. **Bukatu**: 00:49:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:
Leheneno bizikleta lehengusina baten bigarren eskuko GAC bat izan zen. Gizon bat zapaldu zuen behin. Gasteizen eskolara bizikletaz joaten zen.

21. Herri inguruan errekan bainatzeko lekuak

- **Erref**: MUN-043/029
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:49:43. **Bukatu**: 00:53:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Errekan karramarroak hartzen ibiltzen ziren. Ekaitza egoten zenean, osabak errekan amuak jartzen zituen eta hurrengo goizean beti zegoen zerbait. Bainatzera joaten ziren "Barkolontzi" izeneko lekura. Bengolako interpretazio zentroan ere bainatu daiteke.

22. San Juan sorbak eta kantak

- **Erref**: MUN-043/033
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:54:59. **Bukatu**: 00:57:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
San Juanetako ohiturak mantendu egin dituzte eta urtero egiten dituzte. San Juan sorba bezperan egiten da eta hurrengo urtean erre. San Juanetako kantak.

23. Txikitako ipuinak

- **Erref**: MUN-043/034
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:57:46. **Bukatu**: 00:59:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Ama ipuin-kontalari oso ona zen. Txikitan kontatzen zien ipuin bat kontatzen du Irenek.

24. Familiako gabon kantak grabatuta

- **Erref**: MUN-043/035
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:59:10. **Bukatu**: 01:01:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:
Amak asko kantatzen zuen eta Gabonetan beti ateratzen ziren kantuan. Gero, kanta hoiek grabatu egin zituzten eta CD batean ditu gordeta. "Abendu Santu honetan" kantatzen du.

25. Munitibarko Habixi elkargunea

- **Erref**: MUN-043/037
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 01:02:06. **Bukatu**: 01:05:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Gazte garaitan erregimenari aurka egiteko mugimendua zegoen. Euskararen eta euskal kulturaren aldeko ekimenak ere egiten ziren. Habixi elkargunea sortu zen herrian eta orain ere ostiraletan zabaltzen da. Gaztetan ez zegoen gaztetxerik Munitibarren. Inguruko gazteekin biltzen ziren.

26. Lea Ibarreko herrien arteko harremana; udalekuak

- **Erref**: MUN-043/038
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 01:05:04. **Bukatu**: 01:06:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Lea Ibarreko biztanleen artean harremana egon da beti. Udan, udalekuetan elkartzen ziren eta txangoak egiten zituzten. Aulestiko gazte talde batek sortu zuen ekimena.

27. Gaztelaniaz egiteko joera handia

- **Erref**: MUN-043/039
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 01:06:56. **Bukatu**: 01:09:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gernikara joaten ziren juergan eta denek gaztelaniaz egiten zutela gogoratzen du. Gero buelta eman zitzaion egoerari baina gaur egun gaztelaniaranzko joera orokortu egin dela uste du.

28. Barricada zen bere talde gustokoena

- **Erref**: MUN-043/040
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 01:09:10. **Bukatu**: 01:11:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Gaztetan entzuten zituen musika taldeak: Barricada, La Polla, Errobi... Denetarik entzun du (Ruper Ordorika, Egan, Itoiz...) baina musika gogorragoa du gustoko. Kontzertuetara eta erromerietara joaten ziren.

29. Musika entzuteko eta grabatzeko, kasetteak

- **Erref**: MUN-043/041
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 01:11:11. **Bukatu**: 01:11:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Musika kasettean entzuten zuten. Geroago etorri ziren CDak. Irratitik abestiak grabatzen zituzten eta zintari atzera egiteko boligrafoa erabiltzen zuten.

30. Telefonorik ez etxean; telebista, bai

- **Erref**: MUN-043/043
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 01:11:57. **Bukatu**: 01:13:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Telefonorik ez zuten etxean eta berak jarri zuen lanean hasi zenean. Hasieran herriarentzan zentralita bat zegoen. Bost urte zituenean ekarri zuten telebista etxera.

31. Munitibarko okina

- **Erref**: MUN-043/044
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 01:13:52. **Bukatu**: 01:14:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Aitak Munitibarko okindegian lan egin zuen, frontoi atzean. Ogia egin eta banatu egiten zuen. Gero baserriko lanetan ere aritzen zen.

32. Etxean hilerokoa tabua zen

- **Erref**: MUN-043/045
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 01:14:49. **Bukatu**: 01:16:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:
Etxean ez zen hilerokoaz hitz egiten, baina lagunen artean bai.

33. Munitibarko dendak

- **Erref**: MUN-043/046
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 01:16:34. **Bukatu**: 01:17:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Munitibarren hiru denda ezagutu ditu, baina aurretik beste ere egon omen ziren. Gaur egun Ondamendi taberna-denda daukate eta denetarik daukate bertan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-29

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com